



red de hombres del país vasco por la igualdad
berdintasunaren aldeko euskal herriko gizonen elkartea

GizonSarea

AZAROAK 25, emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna
ZER DUGU GIZONOK ESATEKO?

1. Emakumeen aurkako bortizkeria oro erabat gaitzesgarria da; gizonok erabat busti beharra daukagu, honen agerpen guztiak errotik kentzeko.
2. Emakume baten aurka ekintza bortitzak gauzatzeko, zuritzeko, barkatzeko edo isiltzeko edozein aitzakia baztertzen dugu.
3. Emakumeek bortizkeria hau pairatzen dute emakume direlako, eta jasaten dugun berdintasun faltaren ondorioz larrienetakoa da. Giza eskubideen urraketa argia da, mugara eramaten denean erahilketa ere badakarrena. Hau onartezina da ikuspegi guztietatik.
4. Bidegabekeria hau oso errotua dago, egiturazkoa da; haren arrastoak guztiz desegin behar ditugu, hala jendartetik, nola kaltetutako pertsona bakoitzetik.
5. Gizonok emakume eta gizonon arteko berdintasuna nahi –eta behar- dugu. Planeta zaindua, segurua, ederra eta pertsona guzti-guztiekin bidezkoa den moduan partekatua nahi dugu, eta horrekin egiten dugu amets.

...HORREGATIK:

6. Lanean gabiltza norbanako, talde, hezkuntza zein jendarte mailan, emakumeen aurkako bortizkeria begibistarazi eta deslegitimizatzeko, haren aurrez-aurre jarri eta deusezteko.
7. Jendarte patriarkalak gizon bezala hazi eta hezteko ezarri dizkigun balore eta jokabide biolentoak, antidemokratikoak eta arriskutsuak guztiz alboratzeko konpromisoa hartzen dugu.
8. Gazte zein helduen heziketa etikoa, soziala, emozionala eta sexuala sustatzen ditugu, matxismoa gehiago heda ez dadin. Gainerako gizonengana heltzen saiatuko gara, elkar lagunduz eta elkarren begirunean antolatuz, gizon bakoitzak aukera izan dezan berdintasunerantz. bere bidea egiteko
9. Gure konpromisoa da egunez egun jendarte parekide, bidezko, horizontal eta baketsua eraikitzea, inork beste inor Zapalduko ez duen arte.
10. Eta gure ustez, soilik emakumeekin elkarlanean lor dezakegu.